



**Arartekoaren 2/2012 Gomendio Orokorra, abenduaren 12koa.**

**Ordainagiri bidez aldizka kobratzen diren zergetan, zerga-onurak urtero eskatzeko baldintza aldatzea, onuraz hobeto baliatzeko aukera eskaintzen duten beste baldintza batzuen truke.**

## **I. Sarrera**

Toki erakundeek euren zerga-ordenantzetan eskatu behar diren zerga-onura zerrenda luzea eta askotarikoa jasotzen dute, Ararteko erakundearen aurrean kexa ugari eragin dituen, izan ere, udal batzuek, euren ordenantzetan -ziurrenik arauan ezarritako baldintzak behar bezala betetzen direla kontrolatze aldera- onura horri urtebeteko izaera eskaintzen diote nahiz eta, haren izaeragatik, printzipioz, denbora tarte luzeago batean eskaini behar dizkion onurak subjektu pasiboari eta, ordainagiri bidez aldizka kobratzen diren zergei eragiten dien arren.

Zerga-onurak eskatzen diren eta eskatzen ez diren onura gisa sailka daitezke, hura eskaintzeko interesdunaren berriazko eskaera beharrezkoa denaren edo ez denaren arabera. Eskatzen ez diren onuretarako administrazioak onartu behar ditu, baita ofizioz ere; eskatutako onuren kasuan, berriz, subjektu pasiboak hala eskatuta aplikatzen dira, nahita ez.

Aldez aurreko eskaera baten behar hori da kexa iturri nagusia, askotan zergadunek ez dakitelako onura eta salbuespen horiek jaso ditzaketela eta eskatzen dituztenean, kasurik onenean, eskaera denboraz kanpokotzat jotzen dela ikusten dute eta, ondorioz, baita onuraren aplikazioa ere uneko ekitaldirako.

Eskatu behar diren onurak dira, besteak beste, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan (OHZ) etxebizitza babestuei, familia ugariaren jabetza diren etxebizitzetara, monumentu gisa kalifikatuta dauden edo monumentu-multzo gisa definitutako eta babestutako eremuetan kokatuta dauden etxebizitzetara eskaintako onurak; mugikortasun murriztuko egoeran dauden pertsonen salbuespena Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan, ibilgailu historiko bat izateagatik hobera zerga horretan, etab.

Bi zerga horiek (Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga) ordainagiri bidez aldizka kobratzen diren zergak dira eta, hain zuzen ere, hiritarren kexa gehien jasotzen dituztenak dira. Era berean, zaborren tasa, uraren tasa, gordetako aparkalekuagatik tasa, etab. ere ordainagiri bidez aldizka kobratzen diren zergak dira.

Ohikoa izaten da zerga onurak onesten direneko egoerak zerga-ekitaldi zehatzean ez agortzea, denboran luzatzen ohi dira-eta. Mugikortasun murrizteko egoeran dagoen ezgaituaren izaeraren onespenez etorkizunerako ondorioak ditu, familia ugariaren baldintzaren onespenez bezalaxe. Horregatik, ohikoena da, toki erakundeek, subjektu pasibo eskatzailearen aldeko onura onartu ondoren, hurrengo zerga ekitaldietan zehar aplikatzea, hura lortzeko bete beharreko baldintzak mantendu ezker.





Xedapen horrekin batera subjektu pasibo onuradunek zerga onura onesteko bete beharreko baldintzetan gertatutako aldaketak jakinarazteko beharra izaten ohi dute.

Horrek, logikoki, ez du aldatzen ezta mugatzen ere administrazioak, ofizioz, hobaria edo salbuespena emateko eta esleitzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeke duen eskubidea eta, beraz, onuradunak jasotzen duen zerga onurarako eskubidea bermatzeko beharrezkoak diren agiriak aurkez ditzala eska diezaioke subjektu pasiboari.

Horregatik bereziki neketsutzat jotzen dugu ordenantzetan urteko izaerarekin konfiguratzea euren izaeratik subjektu pasiboa hainbat ekitalditan zehar lagunduko duten zerga onurak, izan ere, horren ondorioz, urtero, epean, eskatu behar dute onura aplika diezaioten.

Onartu beharra dago ez dela toki erakundeen artean orokortuta dagoen jardunbidea, beharbada gehienek Eudelek eskaintzen dituen zerga ordenantzen ereduak jarraitzen dituztelako. Hala ere, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan familia ugarietako kideen onuren erabilerari buruzko hainbat kasu antzeman ditugu, ezaugarri komun horrekin.

## II. Gogoetak

### II.1. Familia ugarien babeserako arauzko esparrua

Familia Ugarien Babesari buruzko [azaroaren 18ko 40/2003 Legea](#) familia ugarien babesa uneko gizarte eta ekonomia errealitatera egokitzen du. Horretarako, familia ugaria osatzen duten familia unitateak zehazten ditu, horren kategoria ezberdinak ezartzen ditu eta familia ugari bateko kide izateari lotutako ekintza babeslea finkatzen du. Zehazki, arauak Estatuko eskumenen esparruan gaineratuta dauden onurak zehazten ditu.

Lege horren 5.1. artikulua familia ugaria izateko onespina arautzen du, honelaxe: *"1. La condición de familia numerosa se acreditará mediante el título oficial establecido al efecto, que será otorgado cuando concurren los requisitos establecidos en esta ley, a petición de cualquiera de los ascendientes, tutor, acogedor, guardador, u otro miembro de la unidad familiar con capacidad legal."*

Familia ugariak babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen Araudia onesten duen [abenduaren 30eko 1621/2005 Errege Dekretua](#) 2. artikuluan, Familia Ugariaren Tituluak bildu behar duen gutxieneko eta ezinbesteko edukia zehazten du eta, zentzu horretan, besteak beste, agiri horrek "Tituluaren ondorioen iraupenaren muga-data" gainera dezala ezinbestekotzat jotzen du.





Euskal Autonomia Erkidegoan Familia Ugariaren Titulua foru aldundiek egiten dute eta agiriak, printzipioz, seme edo alaba helduenak 21 urte betetzen dituen arte (edo 26 ikasten ari bada) balio du, betiere familiaren barnean aldaketak egon ezean. Nolanahi ere, adierazi dugun moduan, agirian *iraungitze-data* ageri da, beraz, data hori igaro aurretik berriro behar da, osterantzean baliozkotasuna galtzen baitu.

Data hori garrantzitsua da, ondorioak denboran zehar luzatuko direla adierazten baitu.

Familiak babesteari buruzko euskal araudia ez da horren zehatza. Horrela bada, Familiak Babesteari buruzko [abenduaren 12ko 13/2008 Legeak](#) herri administrazioei, modu abstraktu eta orokorrean, oztopoak kentzeko eta familiei laguntzera bideratutako jardute neurri positiboak hartzeko beharra helarazten die.

Zehazki, zioen azalpenak, familia ugarien berezitasuna azaltzean, zera aurreratzen du: *“Familia ugarien egoerari ere arreta berezia eskaini nahi dio lege honek, gure gizartearen giza kapitalari zer-nolako ekarpena egiten dioten kontuan izanik, eta baliabideak eta bitartekoak, edonolakoak direlarik ere, beti besteek baino gehiago beharko dituztela oinarritzat hartuz.”*

Legeak biltzen dituen zerga neurriek familiek jasotzen duten zerga tratamendua homogeneizatzeko izaera dute eta zentzu horretan, 24.2. artikulua zera xedatzen du: *“Eusko Jaurlaritzak, udal-eskumen diren zerga, tasa eta prezio publikoei dagokienez, horietan batez ere familia ugarien eta egoera bereziki ahulean dauden familien alde egin dadin sustatuko du Autonomia Erkidegoko udaletan”*

Gure autonomia erkidegoan, [lurralde historikoen legearen](#) babesean, zerga alorreko arauzko eskumena Lurralde Historikoei dute (7.a.6. art). Era berean, udalek erabateko autonomia dute dagozkien interesak kudeatzeko, [Konstituzioaren](#) 137. eta 140. artikuluek adierazten eta bermatzen duten toki autonomiaren printzipioaren babesean.

Ondorioz, 13/2008 Legeak eskumen banaketa hori aipatzera mugatzen da eta 28. eta 29. artikuluetan zera dio:

*“28. artikulua.- Foru-aldundienak.*

*1.- Familiei laguntzeko ondoko neurriak aplikatzeko eskumena foru-aldundiek izango dute, bakoitzak bere lurralde historikoan:*

*a) 21. artikuluan gizarte-zerbitzuen arlorako jasota datozen neurriak, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan zehazturiko eginkizun-banaketaren arabera.*

*b) 22. artikuluan gizarteratze-arlorako jasota datozen neurriak, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan zehazturiko eginkizun-banaketaren arabera.*

*c) Zerga-neurrien aplikazioa*

*d) Lege honetan edo ordenamendu juridikoaren gainerako arauetan agintzen zaion beste edozein.*





2.- Era berean, foru-aldundiek izango dute II. tituluko V. kapituluko sentsibilizazio-eta sustapen-neurriak sustatzeko eskumena.”

*“29. artikulua.– Udalenak.*

*Udalek neurri hauek aplikatzeko eskumena izango dute:*

*a) 21. artikuluan gizarte-zerbitzuen arlorako arauturik datozen neurriak, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan zehazturiko eginkizun-banaketaren arabera.*

*b) 22. artikuluan gizarteratze-arlorako arauturik datozen neurriak, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan zehazturiko eginkizun-banaketaren arabera.*

*c) **Lege honetan edo ordenamendu juridikoaren gainerako arauetan agintzen zaion beste edozein”***

Aurreratu dugun moduan, hainbat udalerritan Ondasun Higiezin gaineko Zergan familia ugarien onurak aplikatzearen inguruko arazoa antzeman dugu. Hala ere, horrek ez du esan nahi gertatzen ari den egoera bakarra denik, ezta familien aldeko zerga onurak zerga horretan bakarrik ezarri direnik ere. Alderantziz, toki erakunde asko zergei buruzko foru arauak ezartzen duten gaikuntza orokorra erabiltzen ari dira eta ondorioz, euren zerga ordenantzetan familia ugarien aldeko onurak sortu dituzte, bai Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan bai zaborren zein uraren tasetan. Hala eta guztiz ere, adierazi dugun moduan, gehien zabaldua dagoen onura Ondasun Higiezin gaineko Zergan hobaria sortzea da.

## II.2. Ondasun Higiezin gaineko Zergan ezarritako hobariaren zerga tratamendua

Ondasun Higiezin gaineko Zergan ezarritako oinarritzko araudia hura erregulatzen duten hiru foru arauetan aurkitzen dugu. Arau horiek honakoak dira: Arabaren kasuan, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko [uztailaren 19ko 42/1989 Foru Araua](#), Bizkaian, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko [ekainaren 30eko 9/1989 Foru Araua](#) eta Gipuzkoan, Gipuzkoako Ondasun Higiezin gaineko Zerga arautzen duen [uztailaren 5eko 12/1989 Foru Araua](#).

Hiru arau horiek -modu oso orokorrean baina antzera- ahalmena ematen diete beren lurralde historikoko toki-erakundeei OHZ arautzen duten ordenantzen bitartez zerga horren kuotaren % 90 ere ezartzeko familia ugarietako kide diren subjektu pasiboei.

Horren arabera, udala bakoitzaren zerga ordenantzaren bidez, hobaria duten ondasun higiezin mota eta ezaugarriak, hobariaren iraupena, haren urteko zenbatekoa eta hobariaren gainerako alderdi substantibo eta formalak, beste zerga hobarietarako bateragarritasunerako baldintzak barne, zehaztuko dira.

Hobari hori konfiguratzeko aniztasuna, beraz, oso zabala da bereziki gaineratu duten udalerrien artean, izan ere, foru araua udalen aldeko gaikuntza ezartzera mugatzen da, hura sortu eta konfiguratu dezaten. Horrela bada, hautazko onura da.



Ohikoena da hobariak ondasun higiezin bakar batean eragina izatea: familiaren ohiko etxebizitzan. Izendatzaile komun horretatik aurrera, udal ordenantzek biltzen dituzten aukerak era askotarikoak dira eta, printzipioz, denak dira baliodunak.

Horrela bada, nahiko ohikoa izaten da hobarian portzentaje ezberdinak esleitzea familia horien kuotan, familiak duen kide-kopuruaren arabera; horrez gain, familia unitate bakoitzak jaso dezakeen errenta kopururik handiena ezartzen du, baita familiak duen ondarea ere. Zentzu horretan, ordenantza batzuek onura baztertzerantz heltzen dira familiak etxebizitza bat baino gehiago duenean.

Hobariaren irismena eta baldintza formalak eta funtsezkoak zehazteko ahalmen horretan babestuta, toki erakunde batzuek "subjektu pasiboak, urtero, hobaria eskatu beharko du" moduko xedapenak gaineratzen dituzte eta guk hori ezabatzea proposatzen dugu, ez baita administrazio praktika ona.

Zaila da eragindako familiari urtero onura aplikatu diezaieten eskatu behar izanaren karga neketsua helaraztea. Ezin dugu neurriaren legezkotasuna zalantzan jarri, araudiaren gaikuntzak toki erakundeen esku uzten baitu onuraren baldintza formalak eta funtsezkoak zehazteko ahalmena. Hori bai, onura hori urtero konfiguratu behar izanagatik epeak igaro daitezke eta horren ondorioz onurak galdu daitezke erabat formalak diren arrazoiengatik (eskaera epez kanpo aurkeztea), familiak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan hobaria gozatzeko bete beharreko funtsezko baldintzak betetzen dituen arren.

Behin zerga onura onartuta hori denboran luzatu beharko litzateke, onura eskaintzeko bete beharreko baldintzak mantentzen diren bitartean. Zentzu horretan, kontuan hartu behar dugu toki erakundeek une oro egiazta dezaketela subjektu pasiboak onura jasotzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituela.

Onura urtero eskatzeko beharraren inguruan beste arazo bat sortzen da, eskaera zer epetan aurkeztu behar den bilatzen den ondorioa izan dezan. Ordenantza batzuek gai hori jorratzen dute, beste batzuek ez.

Zerga onuren eskarian tenporaltasuna eta atenporaltasuna, ordainagiri bidez aldizka kobratzen diren zergen kasuan, ez da arazo hutsala familia horientzat, baina, gainera, juridikoki eztabaida sortzen du. Eskaera epe horiek oharkabekoak dira herritarrentzat eta, ordainagiri bidez aldizka kobratzen diren udaleko zergei eragiten dietenez, aurretik ez dute informazio kanpaina handirik.

### **II. 3. Zerga onuren tenporaltasuna eta atenporaltasuna ordainagiri bidez aldizka kobratzen diren zergetan.**

Onura horiek eskatu behar izateak, printzipioz, etorkizunera bideratzen ditu bere ondorioak. Ondorioz, zerga ordenantzetan oso ohikoak dira zentzu horretako xedapen argigarriak: *"Ez du atzeraeraginezko izaerarik, hau da, ez da aplikatuko hobariaren eskaera epean aurkeztu deneko ekitaldian baino lehenagokoetan."*



Zalantza ugari sortzen dira: noiz arte kontsideratuko da eskaera epean aurkeztu dela? sortzapenaren egunera arte? ediktua onartzen den egunera arte? borondatezko bidean ordaintzeko epea amaitzen den egunera arte?

Udalerriren batek hobaria ordaindutako zenbatekoaren itzulketa partzial gisa eratu du, eta horri esker, hala ere, onuradunek erantzun dezakete eta hobaria epean har dezakete. Hala eta guztiz ere, konponbide hori ez da ohikoa zerga ordenantzetan eta ez du saihesten hobaria urtero eskatu behar izatea.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean sortzen da. Sortzapena zerga egitatea burututzat jotzen deneko unea da eta, beraz, zerga beharra sortzen deneko unea. Une horretan, zerga onuraren jasotzeko baldintzak bete behar dira. Hori bai, horrek eskatzen du eskaerak egun hori baino lehenago aurkeztu behar izatea? Toki erakunde batzuek hala uste dute eta berariaz jasotzen dute euren zerga ordenantzetan. Hala ere, doktrinan zabalduen dagoen jokabideak eskaeraren tenporaltasunaren muga likidazioari aurka egin ahal izateko ezarritako epean zehar kokatu ohi du.

Tenporaltasun muga hori defendatzen duen doktrina ondorio horretara heltzen da ediktuak argitaratzearen eta zergaren likidazioaren indarraren printzipioak batera aplikatuz.

Ordainagiri bidez aldizka kobratzen diren zergen berezitasuna da, dagokion erregistroko, erroldako edo matrikulako altari dagokion likidazioa jakinarazi ondoren -nahita ez pertsonalki eta zuzenean egin behar da-, ondorengo likidazioak taldeka jakinarazi ahal direla, hala helarazten duten ediktuen bidez.

Ondorioz, toki erakundearen aldizkari ofizialetan argitaratzen dute ordainagiri bidez aldizka kobratzen diren zergen erroldak jendaurrean agertzeko iragarkia. Ediktu horien bidez erroldan gaineratutako likidazioak elkarrekin jakinarazten dituzte eta, gainera, berraztertze errekurtsoa aurkezteko epea irekitzen dute, horretarako hilabeteko epea ezartzen da, normalean ediktua argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita. Une horri -ediktuak biltzen duen taldeko jakinarazpenari aurre egiteko epea amaitzen denean- lotzen diote autore batzuek eskaeraren atenporaltasuna.

Zentzu horretan ezarritako epea, handiagoa bada ere, zalantzazkoa da, ezin baita alde zehatzetik zehaztu noiz amaitzen den.

Ezin dugu ukatu, ediktu horiek aldizkari ofizialetan argitaratzen sortutako ondorio juridikoak alde batera utzita, herritarrek ez dutela argitalpen horren berririk izaten, ezta errekurtsoak aurkezteko epeen berririk ere, eguneroko zeregin premiazkoenek aukerarik ematen ez dietelako.





Ondorioz, zerga onuren aplikazio finalista defendatu behar da eta, beraz, hobariak jasotzeko ezarritako oztupoak eta trabak ezabatzearen aldekoa. Herri administrazioek kontrolerako ahalmen eta tresna nahikoak dituzte hobariak denboran luzatu ez daitezen subjektu pasiboak hobari horiek jasotzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituenean. Askoz ere errazagoa da hobari bat mantentzeko agirien eskaera bat bideratzea aurreratu eta, beharrezkoak diren agiriekin batera, eskaera bat epean aurkeztea baino.

### **III. Gomendio orokorra**

Ordainagiri bidez aldizka jasotzen diren zergei dagokienez eskatu behar diren onuren kasuetan, toki erakundeek euren zerga ordenantzak alda ditzaten onura urtero eskatu behar izatearen beharra kenduz, onura horrek, bere izaerarengatik, subjektu pasiboaren aldeko ondorioak izan ditzakeenean hainbat zerga ekitalditan zehar.

